

IZARTU II PROGRAMAREN SEGIMENDUARI BURUZKO TXOSTENA

2009 URTEA



Aurkibidea

1. SARRERA	1
2. LABURPENA ETA ONDORIOAK	3
3. IZARTU 2004-2009 PROGRAMAREN EXEKUZIOARI BURUZKO TXOSTENA	6
3.1. ESKU-HARTZEA 2009 URTEAN ETA DESBIDERATZEAK	6
3.1.1. 2009ko esku-hartzearen finantza-exekuzioa	8
3.1.2. Programazioan egin diren aldaketak eta gertatu diren desbideratzeak	11
3.2. IKUSPEGI FUNTZIONALAREN ETA LURRALDE-IKUSPEGIAREN ALDETIK PROGRAMAK	
EGIN DITUEN AURRERAKUNTZEN BALIOESPENA	14
3.2.1. Inbertsioaren aldetik programak izan duen aurrerakuntza	14
3.2.2. Herriek inbertsioetan egindako ekarpenak eta jaso diren diru-laguntzak	17
3.2.3. Aurrerakuntzen balioespena. Udalen ikuspegi integrala	18
3.2.4. Programaren kudeaketa eta programa zabaltzea	22
4. HIRIAK SUSPERTZEKO PROZESUEN AURRERAKUNTZARI BURUZKO TXOSTENA 2004-2009	24
4.1. HELBURUETAN AURRERA EGITEA: INBERTSIOA ETA GAUTZATZEAK	24
4.2. HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUEN EMAITZAK ETA INPAKTUAK	29
4.2.1. Lurralde-integrazioari buruzko arazoak gainditzea	29
4.2.2. Esparru kaltetuak edota abandonatuak bere onera ekartzea eta hobetzea	31
4.2.3. Hiriko jarduerak ingurumenean duten eragina murriztea	34
4.2.4. Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea	35
4.2.5. Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hastea	37
4.2.6. Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei laguntzea	39

Grafikoen aurkibidea

3. IZARTU 2004-2008 PROGRAMA EGIN ONDOKO TXOSTENA

1. grafikoa: Izartu 2004-2009 Programen batez besteko exekuzioa	8
2. grafikoa: Aplikazio-eremuak. 2009an Izartu II programek egin duten gastua, urte horretarako gastu programatua kontuan hartuta.....	9
3. grafikoa: Eskualdeak. 2009an Izartu II programek egin duten gastua, urte horretarako gastu programatua kontuan hartuta.....	10
4. grafikoa: Udalerrak. Izartu II programen desbideratzeak, 2009ko programazioa kontuan hartuta	12
5. grafikoa: Jarduerak. Izartu II programen desbideratzeak, 2009ko programazioa kontuan hartuta	13
6. grafikoa: 2004-2009 denbora-tartean programek guztizko inbertsioari dagokionez exekutatu dutena	14
7. grafikoa: Aplikazio-eremuak. Guztizko inbertsioari dagokionez, Izartu II programek 2004-2009 denbora-tartean metatu duten gastua.....	15
8. grafikoa: Eskualdeak. Guztizko inbertsioari dagokionez, Izartu II programek 2004-2009 denbora-tartean metatu duten gastua	16
9. grafikoa: Izartu II programaren martxarekiko gogobetetzea	19
10. grafikoa: Izartu II programak 2004-2009 denbora-tartean laguntza teknikoan egin duen gastua	22
11. grafikoa: 2009 urtean erabili diren komunikazio-, informazio- eta zabaltze-tresnak ...	23

4. HIRIAK SUSPERTZEKO PROZESUEN AURRERAKUNTZARI BURUZKO TXOSTENA

12. grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. Guztizko inbertsioa kontuan hartuta, 2004-2009 denbora-tartean egindako gastuak.....	27
13. grafikoa: Izartu II programen ekarpena "Lurralde-integrazioa" helburuan.....	30
14. grafikoa: Izartu II programen ekarpena "Esparruak bere onera ekartzea eta hobetzea" helburuan.	32
15. grafikoa: Izartu II programen ekarpena "Ingurumenak jasaten duen eragina murriztea" helburuan.	34
16. grafikoa: Izartu II programaren ekarpena "Enpresaburuei, ETEei eta turismoari laguntzea" helburuan	36
17. grafikoa: Izartu II programen ekarpena "IKTNak sartzeari" helburuan	38
18. grafikoa: Izartu II programen ekarpena "Diskriminazio positiboa" helburuan.....	40

Taulen aurkibidea

1. taula: Izartu II programetan aurkeztutako jardueren analisia, esku-hartze eremuaren arabera. 2009 urtea	7
2. taula: Izartu II programak, burutze-urtearen arabera	11
3. taula: 2009 urtean zehar beren programazioa aldatu duten udalerriak	12
4. taula: Udalerriak. Izartu II programen desbideratzeak 2009ko programazioari dagokionez	13
5. taula: Izartu II programetan 2004-2009 denbora-tartean egin den inbertsioa. Udalen ekarpena eta diru-laguntzak	18
6. taula: Izartu II programetako jarduera gauzatuen analisia, esku-hartze eremuaren arabera. 2009 urtea.	20
8. taula: Izartu II programen jarduera amaituetatik gehien balioesten diren alderdiak	21
9. taula: Kohesio-helburu orokorrak. 2004-2009 denbora-tartean gauzatu diren ekintzen aurrerapena	28
10. taula: Kohesio-helburu orokorrak. 2004-2009 denbora-tarteko emaitzen aurrerapena	29

1. Sarrera

2009 urteko Izartu programaren Jarraipenerako eta Ebaluaziorako Txostenean Izartu II programaren deialdian hainbat udalerri suspertzeko aurkeztu ziren 68 programa integralen garapen-sintesia aurkezten da.

Horrez gain, programa horren onuradunak diren udalerrien lurralde-egituraketan eta egituraketa sozial eta ekonomikoan lortutako emaitza eta eragin nagusienak ere aurkezten dira bertan.

Jarraian aurkeztuko dugun txostenaren bidez bildu eta zehaztu nahi izan da aipatutako denbora-tartean ekintzak nola gauzatu diren. Halaber, urte hauetan egin den lanari buruzko ikuspegi globala ere eman nahi da. Horrez gain, programaren azken txanpan eman diren aurrerapausoak, emaitzak eta ondorioak azalduko ditugu. Horretarako, kontuan hartuko dira programen udalerrietako arduradunek 2009ko exekuzio-txostenetan eman dituzten datuak.

Horrela, aurreko txostenetan bezala, txosten honetan ere exekuzioaren laburpena eskaintzeaz gain, 2009 urteko jarraipen-txostenean bi kapitulu nagusi bereiz daitezke.

Lehenengo kapitulua, Izartu 2004-2009 programa egin ondoko txostena da. Kapitulu horretan teknikoki aztertu da programan aurreikusitakoak benetan nola gauzatzen ari diren, esku-hartzearen exekuzioa zein den eta, azken batean, mintzagai dugun ekimenaren bilakaera nolakoa izan den. Horretarako, batetik, funtzioaren araberrako sailkapenari –ardatzei eta neurriei– eta, bestetik, lurraldearen araberrako sailkapenari –eskualdeei eta udalerriei– erreparatuko diegu.

Kapitulu horretan alderdi hauek aztertuko dira: esku-hartzearen finantza-exekuzioa; programazioan egin diren aldaketak edo gertatu diren desbideratzeak; azken horien zioak eta emandako irtenbideak; lehenetsitako ardatzen eta udalerrien aurrerakuntza; jaso diren bestelako diru-laguntzak; erabilitako laguntza tekniko eta programaren hedapena bermatzeko hartu diren neurriak.

Bigarren kapitulua hiria suspertzeko prozesuen aurrerakuntzari buruzko txostena da. Bertan, programek aldatu nahi duten errealitatean egin dituzten ekarpenak aztertzen dira, hau da, programaren kohesio-helburu orokorrak betetzeari buruzko balioespen kualitatiboa da, eta helburu horiek dira, hain zuzen ere, programaren helburuak; bigarren deialdi honetan onuradun gertatu diren 68 udalerriek lortu nahi izan dituztenak.

Bigarren kapituluan aztertuko dira programan aurreikusi diren ekintzen aurrerapenak, lortutako emaitzak eta programak aplikazio-eremuetako lurralde-, gizarte- eta ekonomia-kohesioan izan duen eragina.

2. Laburpena eta ondorioak

2009 urtean beste 12 udalerri onuradunek amaitu dituzte beren programak. Udalerri horiei aurreko urteetan programa amaitu zuten 29 udalerriak batuz gero, Izartu programen % 60 amaitu dela baieztatu dezakegu. Horrez gain, esan beharra dago 27 udalerri programaren exekuzioa 2010 urtera arte luzatzea erabaki dutela eta, beraz, datorren urtean amaituko dutela.

Azken bi urteetan, 2008 eta 2009, exekuzio-erritmoa handitu egin da, eta horri esker, 2010 urtea amaitzean (azken urtea) diruz lagundutako jarduera guztiak amaituta egongo dira eta programarekin lortu nahi zen eragina errealitate bilakatuko da aurreikusitako epean.

Hori horrela, **2009 urtean Izartu II programaren onuradun izan diren udalerriek programarako aurreikusitako inbertsio guztiaren % 90 baino gehiago exekutatu dute.** 2009 urtean egindako ahalegin ekonomikoari eta aurreko urteetako ahaleginari esker, 155,9 euroko inbertsio metatua dugu eta aurrekontua 172.933.904 eurokoa da. Horrez gain, **Izartu programaren bigarren deialdiaren bidez diruz lagundu diren ekimenen % 82 burutu da jada,** eta gauzatutako ekimen gehienak antolamenduaren eta birgaitzearen eremukoak dira.

Programa martxa onean doa, eta horren lekuko da 2009rako aurreikusitako exekuzio-gastuak bete izana, **erreferentziazko urtearekiko % 90eko egokitzapena gainditzea lortuz.** Zentzu horretan, Arabako bi udalerri onuradunek, *Agurainek* eta *Gasteizek* dagoeneko amaitu dute Izartu programa, Gipuzkoak aurreikusitako inbertsioaren % 96 exekutatu du eta Bizkaiak % 84. Eskualde hauek amaitu dituzte beren programak: *Arratia-Nerbioi, Bilbo, Donostia, Arabako Lautada, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia.*

Une horretara iritsita, alde batera utzi dira bideragarriak ez ziren ekimenak, eta exekutatu daitezkeen proiektuak exekutatzeke ahaleginetan ari gara. Horrez gain, zenbait programek atzerapenak dituzte (*Bermeo, Leioa, Sestao, Turtzioz eta Trapagaran*), eta programa amaitzeko urtebete falta denez, garrantzi handia hartu dute. Hala ere, aipatu beharra dugu tokiko arduradunen hitzetan aurreikusitako epeen barnean amaituko direla programa horiek.

Nolanahi ere, udalerrri onuradunetako biztanleek **nabaritu dituzte hiriak birgaitzeko abian jarritako prozesuen ondorioak**, eta programaren eragina oso positibotzat jo dute bai biztanleek bai eta erakundeek ere. Aurreko urteetan gertatu izan den modura, garrantzi berezia dute baliabiderik ez izatearen ondorioz endekatze-prozesuan zeuden hiriguneak beren onera ekartzeko egitasmoek, udalerrietako hornidurak hobetu dituzten ekipamendu eta zerbitzu berriek eta ingurumenean eta bizi-kalitatean eragindako hobekuntzek. Hauek dira Izartu programaren beste alderdi positibo batzuk: herritarren parte-hartzea, erakundeen lankidetzak, programaren izaera integrala, eta programak ekonomia, gizartea eta hirigintza berpizteko duen gaitasuna.

Izartu programaren helburu orokorrak lortze aldera, *Lurralde-integrazioari buruzko arazoak gainditzeko* ekintzen artean, irisgarritasuna hobetu da oztopo fisikoak gaindituz eta hiri-sare kohesionatua osatuz (73.000 metro koadro errepide berri egin eta hobetu dira, 41 kilometro pasabide, espaloi eta pasealeku berriak dira eta irisgarritasuna hobetzeko ekipamendu berriak egin dira: 8 arrapala, 10 eskailera mekaniko, 2 igogailu...). *Esparruak bere onera ekartzea eta hobetzea* helburua eta *Hiriko jarduerak ingurumenean duten eragina murriztea* helburua lortzeko gutxi gorabehera 770.000 metro koadroko eremua birstortu da. Horietatik 500.000 metro koadro bere onera ekarritako hiriguneak dira eta 30.000 metro koadro ingurune naturalei dagozkie. Horrez gain, 95.000 metro kanalizazio berriak dira zerbitzuetaarako eta hornikuntzarako.

Sei urte hauetan zehar, *IKTNak sartzea* helburuaren baitan informatikaren eta teknologia berrien erabilera sustatzeko jarduera espezifikoak garatu dira, eta horretarako, zuntz optikoko sareak instalatu dira eta administrazio digitalerako lau ekimen garatu dira. *Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea* eta *Bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei laguntzea* helburuak lortzeko, ekipamendu eta zerbitzu berriak lortu dira, hala nola jarduera ekonomikoetarako azalera gaitu da (150.230 metro koadro) eta jarduera soziokulturaletarako azalera gaitu da (22.300 metro koadro), enpresei laguntzeko programak jarri dira abian (200 ekimen) eta udalerri onuradunetako biztanleen giza garapenerako eta garapen sozialerako jarduerak jarri dira abian (400 jarduera soziokultural).

3. Izartu 2004-2009 programa egin ondoko txostena

3.1

2009KO ESKU-HARTZEAREN FINANTZA-EXEKUZIOA ETA DESBIDERAKETAK

Kapitulu honetan Izartu II programen exekuzioa aztertuko dugu. Horrez gain, **neurtuko dugu 2009 urtean programek zer neurritan egin duten aurrera** esku-hartze eremu bakoitzarentzako eta programaren onuradun gertatu den lurralde bakoitzarentzako ezarritako helburuak betetzekoan.

Hori horrela, funtzioaren –ardatzak eta neurriak– **nahiz lurraldearen** –eskualdeak eta udalerriak– **araberako analisi teknikoa egingo dugu.** Analisia egitean, bidenabar, **aztertuko dugu nola garatu diren Izartuko 39 programetan erreferentziatzeko ekitaldiaren plangintzan jaso ziren aurreikuspenak** (2004-2008 denbora-tartean 29 amaitu ziren), **hau da, esku-hartzearen exekuzioa eta ekimenaren eboluzioa.**

Sailkapen funtzionala egiteko, Izartu programen esparruan proposatutako ekintzak multzo homogeenetan bildu ditugu: orokorrak, ARDATZETAN, eta espezifikak, NEURRIETAN; helburua laguntzen erabilera orokorraren jarraipena eta analisia erraztea da. Izartu II programen esku-hartze esparruak 4 zutabe ditu: Ingurune produktiboa, Tokiko oinarritzko azpiegiturak, Gizarteratzea eta tokiko zerbitzuak eta, amaitzeko, Laguntza teknikoa. Lau zutabe horietan 20 neurri txertatzen dira.

Sailkapen horren baitan 320 jarduera daude, 2008an baino jarduera bat gutxiago, bi jarduera ezabatu eta jarduera berri bat txertatu ondoren. Izartu programa abian jarri zenez geroztik, ez da aldaketa handirik izan hasierako programazioari dagokionez, eta 2004az geroztik 16 jarduera soilik geratu dira bertan behera.

Era berean, 2009an egindako aldaketek ez dute gehiegi aldatu jardueren banaketa, eta programa abian jarri zenez geroztik gertatu izan den modura, jarduera eta inbertsio gehienak 2. ARDATZAri dagozkionak dira: "Tokiko oinarritzko azpiegiturak". **2009an ARDATZ horrek guztizko inbertsioen % 96 eta guztizko jardueren % 77 hartu ditu bere baitan.** 2. ARDATZAK, "Ingurune produktiboa" izenekoak, eta 3. ARDATZAK, "Gizarte-integrazioa eta tokiko zerbitzuak" izenekoak, guztizko esku-hartzeen % 3,4 eta % 1,3 biltzen dituzte beren baitan, hurrenez hurren.

1. taula: Izartu II programetan aurkeztutako jardueren analisia, esku-hartze eremuaren arabera. 2009 urtea.

ESKU-HARTZEAK ARDATZEN ETA NEURRIEN ARABERA	Kopurua	%
1. ARDATZA. INGURUNE PRODUKTIBOA	11	% 3,4
1.1. Jarduera babesteko egiturak sortzea eta garatzea	6	% 1,9
1.2. Azpiegitura produktiboa sortzea eta garatzea	1	% 0,3
1.3. Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta artisau-enpresak babestea	1	% 0,3
1.4. Herria, turismoa eta ondarea sustatzea	3	% 0,9
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	247	% 77,2
2.1. Garraioarentzako azpiegiturak	20	% 6,3
2.2. Telekomunikazioen eta informazio-gizartearen azpiegitura	3	% 0,9
2.3. Azpiegitura energetikoa	6	% 1,9
2.4. Ingurumenaren azpiegitura	39	% 12,2
2.5. Antolamendu- eta birgaitze-azpiegiturak	159	% 49,7
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura	7	% 2,2
2.7. Aisialdiaren eta kulturaren azpiegitura	11	% 3,4
2.8. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren azpiegitura	2	% 0,6
3. ARDATZA. GIZARTERATZEA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	4	% 1,25
3.1. Gizarteratzea	1	% 0,3
3.2. Aukera berdintasuna	1	% 0,3
3.3. Hezkuntza eta gizabidezko prestakuntza	0	% 0,0
3.4. Herritarren segurtasuna	0	% 0,0
3.5. Gizarte-zerbitzuak eta laguntza-zerbitzuak	0	% 0,0
3.6. Zerbitzu soziokulturalak	1	% 0,3
3.7. Herriko oinarritzko beste zerbitzu batzuk	1	% 0,3
4. ARDATZA. LAGUNTZA TEKNIKOAK	58	% 18,1
5.1. Laguntza teknikoak	58	% 18,1


Bestetik, programaren onuradun gertatu diren eskualdeak lurraldeka banatu dira. EAEko 68 udalerri izan dira programaren onuradun. Ikus dezagun eskualde horiek zer lurralde historikotan aurkitzen diren: **Araba** -Arabako lautada-, **Bizkaia** -Nerbioi Garaia, Arratia-Nerbioi, Bilbao, Durangaldea, Enkarterria, Gernika-Bermeo, Bilbo Eskuinaldea, Bilbo Ezkerraldea, Markina-Ondarroa, Plentzia-Mungia eta Txorierri- **eta Gipuzkoa** -Debagoiena, Bidasoa Behea, Debarrena, Donostia, Donostialdeako ekialdea eta mendebaldea, Goierri, Tolosa eta Urola Kosta-.

3.1.1. 2009an gauzatu den esku-hartzearen finantza-exekuzioa.

Izartu II progamek 20.876.264 euroko gastua exekutatu dute 2009an. Beraz, esan dezakegu exekutatutako gastua % 90 baino gehiago egokitzen dela urte horretarako aurreikusitako gastura (23.099.976 €).

2009 urtean indarrean jarraitzen duten 39 programen batez besteko exekuzioa 535.398 eurokoa da. Kopuru horrek pixkanaka gora egin du programak aurrera egiten zuen heinean. Hori horrela, esku-hartzeak abian jartzeko gainditu behar izaten diren oztopoak gainditu ondoren, **inbertsioei dagokienez egin beharreko ahalegina handiagoa izan ohi da programen exekuzioko azken urteetan.**


1. grafikoa: Izartu 2004-2009 Programen batez besteko exekuzioa.



Aipatutakoa betez eta programa aurrera doala kontuan hartuta, **2004-2009 denbora-tartean metatutako gastua 155.909.501,34 eurokoa da; aurreikusitako guztizko inbertsioaren % 90,16.**

Esku-hartze eremuei dagokienez, 2. ARDATZA izan da programatutakoari ondoen heldu diona, ardatz horretan biltzen baitira esku-hartze eta inbertsio gehienak. Ardatz horren baitan, hauek dira urte horretarako aurreikusitako gastuaren exekuzioaren batez bestekoa gainditzen duten atalak: *2.8. Hezkuntzaren eta trebakuntzaren azpiegitura, 2.2. Telekomunikazioen eta informazio-gizartearen azpiegitura eta 2.5. Antolatze- eta birgaitze-azpiegiturak.*


2. grafikoa: Aplikazio-eremuak. 2009an Izartu II programek egin duten gastua, urte horretarako gastu programatua kontuan hartuta.



1. ARDATZEAn eta 3. ARDATZEAn jarduera gutxiago gauzatu dira eta desberdin exekutatu. Ardatz horietan gastu programatuaren % 175 eta % 55 exekutatu da hurrenez hurren. 3.2. neurria, *Aukera berdintasuna* izenekoak gainerakoak baino mantsoago doa.

Lurraldeei erreparatuz gero, badira desberdintasunak gastuak programaziora egokitzerakoan. Arabak eta Gipuzkoak 2009rako zituzten exekuzio-aurreikuspenak gainditu dituzte, % 111 eta % 134 hurrenez hurren. Bizkaian, aldiz, aurreikusitako gasturako egokitzapena % 51koa da.

3. grafikoa: Eskualdeak. 2009an Izartu II programek egin duten gastua, urte horretarako gastu programatua kontuan hartuta.



Gernika-Bermeon, Bilbo eskuinaldean eta Bilbo ezker aldean erreferentziazko ekitaldirako aurreikusitakoa baino gutxiago exekutatu dute, eta hori da, hain zuzen ere, Bizkaian aurreikusitako gastuarekiko egokitzapena txikiagoa izatearen arrazoi nagusietako bat. Horrez gain, programaren onuradun diren zazpi eskualdek programatutakoa baino inbertsio handiagoa egin dute: Arabako Lautada, Nerbioi Garaia, Txoriherri, Debarrena, Donostialdeko mendebaldea, Donostia eta Tolosa.

3.1.2. Programazioan egin diren aldaketak eta gertatu diren desbideratzeak.

Izartu 2008-2004 programaren onuradun diren 68 udalerrietatik 39 udalerri beren programa exekutatzen ari ziren 2009an, eta horietatik 12k programa arrakastaz amaituko dute ekitaldia amaitzen denean. Aipagarria da *Arrasatek, Durangok, Ermuak eta Zeanurik*, Izartu programa 2010ean amaitu zezaketen arren, 2009 urtean amaituko dutela. Hori horrela, 27 udalerrik soilik luzatu dute programaren exekuzioa 2010era arte.

2. taula: Izartu II programak, burutze-urtearen arabera.

2006an burututako programak	Hondarribia.
2007an burututako programak	Abanto Zierbena, Andoain, Otxandio eta Zegama.
2008an burututako programak	Areatza, Arrigorriaga, Balmaseda, Bilbo, Elorrio, Errenteria, Etxebarri, Galdakao, Gueñes, Igorre, Legorreta, Lekeitio, Lemoiz, Markina-Xemein, Mungia, Orio, Portugalete, Sopuerta, Tolosa, Ugao, Gasteiz, Zaldibia, Zalla eta Zierbena.
2009an burututako programak	Antzuola, Arrasate, Astigarraga, Donostia, Durango, Erandio, Ermua, Hernani, Karrantza Harana, Legazpi, Agurain, Zeanuri.
2010era arteko luzapena duten programak	Amorebieta-Etxano, Artzentales, Ataun, Azpeitia, Basauri, Bergara, Bermeo, Derio, Elgoibar, Eskoriatza, Gernika-Lumo, Ibarra, Irun, Iurreta, Lasarte-Oria, Leioa, Lezo, Mallabia, Mutriku, Oiartzun, Segura, Sestao, Soraluze, Turtzioz, Trapagaran, Villabona eta Zumaia.


Horrez gain, **2009ko ekitaldian jatorrizko programa aldatzeko 9 eskaera onetsi ziren**. Aldaketa gehienak aurrekontuei dagozkien aldaketak dira; esku-hartzeetarako aurreikusitako guztizko kopuruei dagozkienak. Gainerako aldaketak programan jarduera berriak sartzeko (jarduera berri bat) edo lehendik zeudenak kentzeko (bi jarduera kendu dira) egin dira.

3. taula: 2009an programazioa aldatu duten udalerriak.

2009an programetan aldaketak egin dituzten udalerriak	Artzentales, Astigarraga, Donostia, Erandio, Durango, Hernani, Lezo, Oiartzun eta Segura.
--	---

Aldaketa horiez gain eta urte horretarako exekutatutako gastuei erreparatuz gero, Izartu programetan ez da desbideraketa handirik gertatu 2009rako programazioari dagokionez. Aipatzekoa da **luzapena eskatu duten udalerrien % 60aren exekuzioa** aurreikusitakoaren **berdina edo hori baino handiagoa** dela eta udalerrien % 38k soilik duela exekuzio txikiagoa.

4. grafikoa: Udalerriak. Izartu II programen desbideratzeak 2009ko programazioa kontuan hartuta.



Gastuaren exekuzioa handiagoa izatearen arrazoia esku-hartzeak garestitzea izan da. Garestitze hori hobekuntzak egin direlako, irismena handitu delako edo baldintza klimatologikoen edo lanen egikaritzean gertatu diren atzerapenen ondorioz sortu diren oztopoek aurreikusitako kostuak handitu dituztelako gertatu da.


4. taula: Udalerriak. Izartu II programen desbideratzeak 2009ko programazioari dagokionez.

Aurreikusitako gastuaren exekuzioan superabita.	Antzuola, Astigarraga, Basauri, Derio, Donostia, Durango, Elgoibar, Hernani, Legazpi, Agurain, Segura, Soraluze, Villabona eta Zumaia.
Exekutututako inbertsioaren % 50 baino gutxiago.	Bermeo, Leioa, Sestao, Turtzioz eta Trapagaran.

Bestalde, atzeratuta doazen programak, inbertsioa kontuan hartuta gastu gutxien exekutatu dutenak, gaur egungo egoera ekonomikoari, hirigintzako kudeaketen konplexutasunari, eta izapideen eta beste egitasmo batzuekiko mendekotasunaren ondorioz gertatutako atzerapenei egozten diete exekuzioa txikiagoa izatearen ardura. Erregistratutako desbideratze horiek gertatu diren arren, tokiko arduradunek programen bideragarritasuna azpimarratzen dute eta 2010erako burutuko dituztela adierazi dute.

Ildo horretan, **aipagarria da erreferentziazko ekitaldian programazioaren betetze-maila oso handia dela** eta aurreko ekitaldiekin alderatuz gero, desbideraketak dituzten esku-hartzeek behera egin dutela. 2009ean indarrean zeuden programei erreparatuz gero, martxan zeuden 185 esku-hartzeen % 50ean ez zen desbideraketarik gertatu, desbideraketen % 19 superabita eragin zuten exekuzioei zegokion eta jardueren % 28k ez zuen gainditu programazioko exekuzioen % 80.

5. grafikoa: Jarduerak. Izartu II programen desbideratzeak 2009ko programazioa kontuan hartuta.




3.2

**IKUSPEGI FUNTZIONALAREN ETA LURRALDE-IKUSPEGIAREN
ALDETIK PROGRAMAK EGIN DITUEN AURRERAKUNTZEN
BALIOESPENA****3.2.1. Inbertsioaren aldetik Programak izan duen aurrerakuntza.**

Ekimena amaitzeko urtebete falta da eta **2004-2009 denbora-tartean metatutako gastua 155.909.501 eurokoa da**; Izartu programan **aurreikusitako guztizko inbertsioaren % 90**.

6. grafikoa: 2004-2009 denbora-tartean programek guztizko inbertsioari dagokionez exekutatu dutena.




Laguntza teknikoarekin lotura duten jarduerak alde batera utziz eta 2004-2009 denbora-tartean gauzatu diren jarduerari erreparatuz gero, hauteman dezakegu esku-hartze eremuek antzera egin dutela aurrera. Neurriekin, ordea, ez da gauza bera gertatu.

Gastuen eta esku-hartzeen exekuzioari erreparatuz gero, 2009an lau neurri amaitu dira: 1.2. *Azpiegitura produktiboa sortzea eta garatzea*, 2.2. *Telekomunikazio-azpiegitura eta informazio-gizartea*, 2.3. *Azpiegitura energetikoa* eta 2.8. *Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura*. Neurri horiei aurreko urteetan amaitutako neurriak gehitu behar dizkiegu: 1.3. *Enpresaburuak, ETEak eta artisau-enpresak babestea*; 2.6. *Gizarte- eta osasun-azpiegitura*; 3.1. *Gizarteratzea* eta 3.6. *Zerbitzu soziokulturalak*.

Oraindik amaitu ez diren neurriei dagokienez, hauek dira exekuzio ekonomikoko batez besteko handiena (% 90) duten neurriak: *1.4. Herria, turismoa eta ondarea sustatzea; 2.1. Garraioaren azpiegiturak; 2.7. Aisialdiaren eta kulturaren azpiegitura*. Bestalde, hauek dira exekuzio ekonomikoari dagokionez atzeratuen dauden neurriak, hots, guztizko inbertsioaren % 85era iristen ez direnak: *1.2. Azpiegitura produktiboa sortzea eta garatzea, 2.4. Ingurumenaren azpiegitura eta 3.2. Aukera berdintasuna*.


7. grafikoa: Aplikazio-eremuak. Guztizko inbertsioari dagokionez, Izartu II programek 2004-2009 denbora tartean metatu duten gastua.



Lurralde-ikuspegiari dagokionez, **Araba da lurralderik aurreratuen programa burutu baitu dagoeneko**. Programaren inbertsioa 6 milioi eurokoa izan da gutxi gorabehera. Gipuzkoan inbertsioaren % 96 gauzatu da, 76,5 milioi euro, eta Bizkaian diruz lagun zitekeen inbertsioaren % 84 gauzatu da, 73,5 milioi euro.

Ondorengo eskualdeek amaitu dituzte beren programak: Arratia-Nerbioi, Bilbo, Donostia, Arabako Lautada, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia. Eskualde hauek batez bestekoa baina exekuzio handiagoa (% 90): *Nerbioi Garaia, Txoriherri, Donostialdeko mendebaldea, Goierri eta Tolosa*. *Bilbo eskuinaldea, Gernika-Bermeo eta Debabarrena* dira batez besteko aurrerapenari dagokionez atzeratuen dauden eskualdeak.

8. grafikoa: Eskualdeak. Guztizko inbertsioari dagokionez, Izartu II programek 2004-2009 denbora tartean metatu duten gastua.



3.2.2. Herriek inbertsioetan egin dituzten ekarpenak eta jaso diren diru-laguntzak.

Aldi bereko finantzaketari dagokionez, udal onuradunek Izartu 2004-2008 programaren zati bat finantzatu behar dute. Zati horren % 37, batez beste, udalerriek hartzen dute beren gain. Alde horretatik, gogoan izan behar da batzuek eta besteek egin behar duten inbertsioa finantzazio-tasaren zenbatekoaren arabera dela; izan ere, gizarte-ekonomiaren hondamena zehazteko irizpideetan oinarrituta, diru-laguntzak inbertsioaren % 30, % 50 edo % 75 finantzatzen laguntzen du. 47 programek jaso dute inbertsioaren % 75eko diru-laguntza; 17 udalerrik jaso dute % 50eko laguntza; eta 4k % 30ekoa.

Hartara, 2004 eta 2009 artean Izartu II programen esparruan **exekutatuak 155,91 milioi euroetatik**, programak berak emandako diru-laguntza kontuan izanik, **57,7 milioi euro inguru** tokiko erakundeek inbertitu dituzte.

Bestetik, programak bateragarriak dira beste administrazioek eta erakundeek eman ditzaketen diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin. Alde horretatik, udalerriek laguntza handia izaten dute finantzazioan dagokien zatia lortzeko. Aipatutako erakunde eta administrazioetatik jaso diren laguntzak, nolanahi ere, ezin dira bateratu Eusko Jaurlaritzako programa edo sail zehatz batzuek eman dituzten laguntzekin.

2009an beste laguntza eta diru-laguntza batzuetatik 3.480.779,87 euro jaso dituzte Izartu II programaren barruan gauzatzen ari diren jarduerak. 2004-2009 denbora-tartean, udalerri onuradunek 17.962.774,95 € jaso dituzte, hau da, guztizko gastu exekutatuaren % 12 eta herrien diru-ekarpenen batez bestekoaren % 31. Diru-kopuru handia den arren, Izartu II programaren barruan dauden 262 jardueretatik % 20k, hau da, 52 jarduerak, soilik jaso dute bestelako laguntzaren bat. Udalerriei dagokienez, udalerrien % 40k, hau da, 27 udalek jaso dute programaz kanpoko laguntza.

5. taula: Izartu II programetan 2004-2009 denbora-tartean egin den inbertsioa. Udalen ekarpena eta diru-laguntzak.

INBERTSIOA	Metatua (2004-2009)
IZARTUREN DIRU-LAGUNTZAK	98.222.986 €
BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUK	17.962.775 €
UDALEN EKARPENA	39.723.740 €
GUZTIRA	155.909.501 €

Tipologiari erreparatuz, ondorengo neurri hauen baitako jarduerak jaso dituzte diru-laguntzak 2009ko ekitaldian: *2.5. Antolatze- eta birgaitze-azpiegiturak*, *2.7. Aisialdiaren eta kulturaren azpiegiturak* eta *2.3. Azpiegitura energetikoa*. Diru-laguntzen jatorriari dagokionez, Foru Aldundietatik datoz gehienak, Ingurumen, Kultura, Gizarte Politika, Mugikortasuna eta Lurraldearen Antolamendua sailetatik, hain zuzen ere. 2009 urtean zehar erakunde hauek ere lagundu dituzte diruz: Tokiko Inbertsioetarako Estatuko Funtza eta Osakidetza.


3.2.3. Aurrerakuntzen balioespena. Udalen ikuspegi integrala.

Izartu programaren ikuspegi orokorra kontuan hartuz gero, tokiko arduradunek orain arte egindako ekintzei buruz duten iritzia oso ona da, eta iritzi hori bat dator aurreko ataletan aipatu ditugun emaitza onekin.

2009 urtean indarrean zeuden programen 39 onuradunetatik, **udalerrien % 91k asko balioesten du** orain arteko exekuzioa eta baliabide eskasiagatik endekatze-prozesua jasaten ari ziren hiriguneak bere onera ekartzeak izan duen eragina.

Udalerri onuradunen % 3k ekimenarekiko azaldu duen balioespena erlatibizatu du urte hauetan zehar jasan behar izan dituzten atzerapenak eta arazoak tarteko, horiek exekuzio handiagoa lortzea eragotzi baitiete (atzerapenak lanak gauzatzean, hirigintzako izapide konplexuak, egungo egoera ekonomikoa, eta abar).

9. grafikoa: Izartu II programaren martxarekiko gogobetetzea.



Programen tokiko arduradunak oso pozik daude, herriek espero bezala egin baitute aurrera programek. **Izartu II Programen % 60 amaitu da dagoeneko.** Horrela, aurreko ekitaldietan programak bukatu zituzten 29 udalerriei 2009an programak burutuko dituzten beste 12 gehitu behar dizkiegu: Antzuola, Arrasate, Astigarraga, Donostia, Durango, Erandio, Ermua, Hernani, Karrantza, Legazpi, Agurain eta Zeanuri.

Dena den, azpimarratu beharra dago programen martxarekiko iritzi positiboa nagusi dela, gehienbat, aurreko urteetan gertatu bezala, jarduera burutuek nabari hobetu dutelako udalerri onuradunetako herritarren bizi-kalitatea eta udalerrien irudia. Gai horrekin jarraituz, **Izartu II programen barruan dauden 262 jardueretatik** (laguntza teknikoko jarduerak alde batera utzita) **215 burutu dira denbora-tarte horretan, hau da, % 82.**

6. taula: Izartu II programetako jarduera gauzatuen analisia, esku-hartze eremuaren arabera. 2009 urtea.

ESKU-HARTZEAK ARDATZEN ETA NEURRIEN ARABERA	Jarduerak guztira	Burututako jarduerak	%
1. ARDATZA. INGURUNE PRODUKTIBOA	11	9	% 82
1.1. Jarduera babesteko egiturak sortzea eta garatzea	6	5	% 83
1.2. Azpiegitura produktiboa sortzea eta garatzea	1	1	% 100
1.3. Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta artisau-enpresak babestea	1	1	% 100
1.4. Herria, turismoa eta ondarea sustatzea	3	2	%679
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	247	204	% 83
2.1. Garraioarentzako azpiegiturak	20	19	% 95
2.2. Telekomunikazioen eta Informazio-gizartearen azpiegitura	3	3	% 100
2.3. Azpiegitura energetikoa	6	6	% 100
2.4. Ingurumenaren azpiegitura	39	32	% 82
2.5. Antolamendu- eta birgaitze-azpiegiturak	159	127	% 80
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura	7	7	% 100
2.7. Aisialdiaren eta kulturaren azpiegitura	11	10	% 91
2.8. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren azpiegitura	2	2	% 100
3. ARDATZA. GIZARTERATZEA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	4	2	% 50
3.1. Gizarteratzea	1	1	% 100
3.2. Aukera berdintasuna	1	0	% 0
3.6. Zerbitzu soziokulturalak	1	1	% 100
3.7. Herriko oinarrizko beste zerbitzu batzuk	1	0	% 50

Burututako esku-hartzeei dagokienez, tokiko arduradunek exekutaturako egitasmoei esker hirietako ingurune fisikoa nabarmen hobetu dela adierazi dute. Gainera, egitasmo horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke udalen baliabide eskasekin.

Aipatzekoa da Izartu programaren lehen deialdian (Izartu 2001-2005 programa) parte hartu zuten udalerri onuradunen hitzetan bigarren deialdiari esker, zenbat kasutan guztiz gainditu ahal izan dituztela esku-hartze gunetako hirigintza-hondamendia eta hondamendi sozio-ekonomikoa.

Arduradunak gustura daude Izartu programaren zeharkako beste alderdi batzuekin ere: departamentuen arteko eta maila desberdinetako erakundeen arteko elkarlanarekin; planifikatzeko beharrarekin eta programaren izaera integralarekin; eta programak herrian zehazteko nahiz ezartzeko filosofiarekin.

8. taula: Izartu II programen jarduera amaituetatik gehien balioesten diren alderdiak.


"Biztanleen iritziak azken bost urte hauetan udalerrriak erdietsitako lorpenak eta hobekuntzak berresten ditu eta argi geratu da hau bezalako esku-hartzeak ezinbestekoak direla udalerriko bizitza sozialerako eta biztanleen bizi-kalitaterako. (...) IZARTUren ekarpena oso handia izan da udalerriko garapen urbanistikoa eta azpiegituren garapena oztopatzen zuten oztopo nagusiak gainditu ahal izateko, egitasmoak modu antolatuan eta sekuentzialean gauzatu baitira. Egitasmoak gauzatu izanari esker, hiri-kohesio handiagoa lortu dugu, eta udalerriko biztanle gehienek nabaritu dute aldaketa eta zaharkituta zeuden egituren berrikuntza."
"Programaren eragina oso garrantzitsua izan da bai hirigunearen berrikuntzan, bai eta guneen berreskurapenean ere. Aldaketa handiak nabari daitezke Izartu II programa baino lehenagoko egoeraren eta ondorengo egoeraren artean. Udalerrriaren suspertzea begien bistakoa da hainbat alderditan; ikus daitezkeenetan zein ikusezinak direnetan."
"Izartu II programak berebiziko aukera eskaini zigun udalerrria suspertzeko estrategia integral bati ekiteko".
"Auzoa suspertzeko ezinbestekoa izan da. Biztanleen parte-hartzearekin gauzatu da, modu antolatuan eta udalerriko garapenean ezinbesteko elementua izan da."
"Izartu finantza-laguntza handia da; edukiagatik eta dimentsioagatik, udalerrian eragin handia izango duten proiektuak proposatzeko eta gauzatzeko pizgarria. Aurreko IZARTU programarekin alderatuz gero, udalerrri honi dagokionez behintzat, asko balioesten dugu agintariak gure nahiak kontuan hartu izana."
"Izartu programa tresna baliagarria izan da udalerrriaren suspertzea eta kohesio soziala lortzeko. Era berean, tresna deszentralizatua denez, posible izan da esku-hartzeak jarduera-esparrutik gertuen zeuden agenteek, hau da udalek, kudeatzea, eta horri esker, programak eraginkortasun handiagoa izan du."

3.2.4. Programaren kudeaketa eta programa zabaltzea.

Lehenengo deialdian gertatu bezala, Izartu II programaren onuradun gertatu diren udalerri gehienek kanpoko laguntza teknikoa dute, aldi baterako edo modu iraunkorrean, herrian gauzatzen ari diren Izartu Programak kudeatzen, horien jarraipena egiten eta kontrolatzen laguntzeko.

2009 urtean, Izartu II programaren onuradunen % 77k, hau da 30 udalerrik, kanpoko **laguntza teknikoa kontratatu dute**, eta 151.127 euro inbertitu dituzte horretan. Gastu hori aurreko urteetako baina txikiagoa da, gauzatzen ari diren Izartu programak ere gutxiago baitira.

10. grafikoa: Izartu II programak 2004-2009 denbora-tartean laguntza teknikoan egin duen gastua.




2004-2009 denbora tartean laguntzarako neurri horietan 1.729.669 euro gastatu dira guztira; Izartu programetan exekutatutako guztizko inbertsioaren % 1,1 alegia.

2009an udalerriek laguntza teknikoa behar izan dute proiektuak kudeatzeko, koordinatzeko eta kontrolatzeko, eta programaren bidez lortu nahi diren helburuak eta ezarri diren arauak betetzen direla ziurtatzeko. Laguntza teknikoa behar izan da, baita ere, finantza-kontrola eta -segimendua gauzatzeari buruzko agiriak egiteko. Bai eta azken ebaluazioari buruzko txostenak lantzeko ere.

Gauzatutako esku-hartze guztietan Izartu programek bete duten publizitate- eta hedatze-arauen exekuzioari dagokionez, **udalerrien % 72k 2009 urtean hedatze-jarduera berriak egin dituela adierazi du.**

Erreferentziazko ekitaldian gauzatu diren publizitate-ekintzei dagokionez, hauek dira azpimarragarrienak: Izartu programen % 78k esku-hartzeak egin diren tokietan publizitate-kartelak, taulak eta panelak jarri izana. Bestetik, herritarrek jakinaren gainean jartzeko, programen % 26k udalak informazioa zabaltzeko dituen bideak baliatu izana (udaleko webgunea, herriko aldizkariak, postontzietan informazio-orriak sartzea, proiektuak jendaurrean jartzea...). Eta amaitzeko, publizitate-kanpainak abian jarri izana, eta eskualdeko aldizkari, egunkari eta ikus-entzunezko hedabideetan artikulak argitaratu izana (irratian, herriko telebistan, erkidegoko telebistan, eta abar). 2009an, aukera horren alde egin du onuradunen % 13k.

11. grafikoa: 2009 urtean erabili diren komunikazio-, informazio- eta zabaltze-tresnak.



4. Hiria suspertzeko prozesuen aurrerakuntzari buruzko 2004-2009 urteetako txostena

4.1


HELBURUETAN AURRERA EGITEA: INBERTSIOA ETA GAUTZATZEAK

Kapitulu honen helburua da programek Izartu programan zehaztutako eraldaketarako helburuei egindako ekarpena aztertzea. Horretarako, aztertuko dugu **2004-2009 denbora-tartean zenbateraino lortu diren Izartu programen esparruko ekintzen helburuak eta zer-nolako eragina izan duten ekintzok kohesio-helburu orokorretan.**

Lehenengo deialdiaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko hirigune kaltetuak sozialki eta ekonomikoki suspertzea zen eta azken deialdi honek ere helburu hori lortzea izan du xede. Horretarako **jarduera integralak** (Hiriak biziberritzeko programa integratuak) gauzatu dira. Jarduera **horien bidez modu bateratuan landu dira udalerri horietako arazo zehatzak** (sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak, eta abar). Guztien **helburu nagusia lurralde-kohesioa eta kohesio ekonomikoa eta soziala lortzea da.**

Horregatik, jardueraren tipologiari, xedeari edo lortu nahi diren eraginei erreparatuz gero, Izartu programaren bidez diruz lagundu diren jarduerak kohesio-helburu orokor hauetan bana ditzakegu:

LURRALDE-INTEGRAZIOARI BURUZKO ARAZOAK GAINDITZEA



- Helburu hau dute Izartu II programako 58 jarduerak, hau da guztizko inbertsioaren % 19k.
- Jarduera horien bidez hauek lortu nahi dira: auzoetako edo hirien kanpoko aldeko eremuetako hiri-baldintzak eta irisgarritasuna hobetzea; oztopo fisikoak gainditzea; eta hirian sare kohesionatua ehuntzea, oinezkoentzako zein ibilgailuentzako bide berrien, eskaileren eta arrapala mekanikoen bidez, irisgarritasunari eta mugikortasunari buruzko planen bidez, eta abar.

ESPARRU KALTETUAK EDOTA ABANDONATUAK BERE ONERA EKARTZEA ETA HOBETZEA




- Helburu hau dute Izartu II programako 106 jarduerak, hau da guztizko inbertsioaren % 49k.
- Jarduera horien xedea da natur-, industria- eta hiri-inguruneak nahiz bestelako eremu kaltetuak bere onera ekartzea. Horrez gain, esparruak eta ekipamenduak prestatuko dira herritarrek ingurumenaz goza dezaten.

HIRIKO JARDUERAK INGURUMENEAN DUTEN ERAGINA MURRIZTEA



- Helburu hau dute Izartu II programako 60 jarduerak, hau da, guztizko inbertsioaren % 20k.
- Jarduera horien bidez hobekuntzak egingo dira hirigintzan eta udalerriko sareetan eta zerbitzuetan. Hiriaren itxura ere hobetuko da. Horretarako, alde zaharrak, eraikinak eta etxebizitzak berrituko dira, azpiegiturak eta esparru publikoak jarriko dira...

ENPRESABURUAK, ETE-AK, TURISMOA ETA UDAL-ONDAREA BABESTEA



- Helburu hau dute Izartu II programako 20 jarduerak, hau da, guztizko inbertsioaren % 6k.
- Proiektu hauen bidez enpresa berriak sortzeko eta erakartzeko aukerak handitu nahi dira. Horrez gain, lehendik zeuden enpresen negozio-aukerak ere handitu nahi dira. Bestalde, hiri-ekipamendu gehiago jarri nahi dira gizartea eta hirugarren sektorea garatzeko eta turismoa sustatzeko.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK SARTZEA



- Helburu hau dute Izartu II programako 6 jarduerak, hau da, guztizko inbertsioaren % 3k.
- Jarduera hauen bidez zuntz optikoa eta udaleko zenbait ekipamendu eskaini nahi dira. Horrez gain, hiriko administrazio zerbitzuak digitalizatu nahi dira, e-Administrazioa.

GIZARTE- ETA LAN-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN TALDEEI LAGUNTZEA




- Helburu hau dute Izartu II programako 12 jarduerak, hau da guztizko inbertsioaren % 3k.
- Gizarte zerbitzuetako eta hirugarren sektoreko ekipamenduen proiektuak, egoitza soziokulturalak, liburutegiak, adinekoentzako, gazteentzako edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeentzako guneak...

4.1.1. Helburu orokorretan egindako aurrerapenak, inbertsioari dagokionez.

Hauek dira jarduerarik gehien eta inbertsiorik handiena duten helburuak: *Lurralde-integrazioari buruzko arazoak gainditzea; Esparru kaltetuak edota abandonatuak bere onera ekartzea eta hobetzea; eta Hiriko jarduerak ingurumenean duten eragina murriztea.*

2004-2009 denbora-tarteko inbertsioaren exekuzioa antzekoa da helburu gehienetan: guztira aurreikusitakoaren % 88 eta % 91 artekoa. Hala ere, helbururik aurreratuen *Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei laguntzea* helburua da. Helburu horren exekuzioa % 170ekoa da. Exekuzio hori Hernaniko udalak *Zaharren egoitza handitzea* jardueran izandako gastuaren superabitaren ondorio da eta, oraindik, helburu hori lortzeko jarduerak amaitzeke daude.

12. grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. Guztizko inbertsioa kontuan hartuta, 2004-2009 denbora-tartean egindako gastuak.



4.1.2. Helburu orokorretan egindako aurrerapenak, ekintzei dagokienez.

Ildo berean, **gauzatzeen exekuzioari dagokionez** (jarduerak "gauzatze" izeneko esku-hartzetan banatzen dira, lortu nahi den helburua betetzeko), **herrietako arduradunek aurrera egin duela hauteman dute**. Gauzatzeen aurrerakuntza gauzatze-adierazleen bidez neurtzen da. Arduradunen ohartarazpenak, beraz, jardueren errealitatearen eta aurrerakuntzaren gaineko ikuspegi zehatzagoa ematen digu.

Exekuzio ekonomikoaren kasuan ez bezala, **udaletan mantsoago exekutatzen dira gauzatzeak**, aurreikusitakoaren **% 85** exekutatu da. Litekeena da exekuzio ekonomikoaren eta gauzatzeen exekuzioaren arteko desberdintasunaren oinarrian udalek jarduerak garatzean egiten duten inbertsio-ahalegin handia egotea.

Gauzatzeen exekuzioaren erritmoa ez da bera izaten kohesio-helburu guztietan. Ezarritako batez bestekoaren gainetik ondorengo helburuak aurki ditzakegu: *Lurralde-integrazioari buruzko arazoak gainditzea, IKTak sartzea eta Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei laguntzea.*

Helburu hauen exekuzioa, aldiz, ez da % 85era iristen: *Esparru kaltetuak edota abandonatuak bere onera ekartzea eta hobetzea* (% 82), *Hiriko jarduerak ingurumenean duten eragina murriztea* (% 85) eta *Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea* (% 70). Atzerapen horren erantzuleak administrazio-izapideak, baldintza klimatologikoak, interdependentzia edo proiektuen konplexutasuna dira, besteak beste.

9. taula: Kohesio-helburu orokorrak. 2004-2009 denbora-tartean gauzatu diren ekintzen aurrerakuntzak.

HELBURU OROKORRAK ETA JARDUERA-MOTAK	Jard. kop.	% Gauzatzeak
LURRALDE-INTEGRAZIOARI BURUZKO ARAZOAK GAINDITZEA	58	% 99
Bideak eta sarbideak sortzea edo hobetzea.	43	% 105
Sarbide mekaniko berriak (arrapalak, eskailerak, igogailuak).	6	% 73
Hirigintzako oztopoak ezabatzea eta oinezkoentzako eremuak garbitzea.	2	%100
Hirigintzako kalitate-mailak egokitzea.	8	% 85
ESPARRU KALTETUAK EDOTA ABANDONATUAK BERE ONERA EKARTZEA ETA HOBETZEA	106	% 82
Industrialdeak bere onera ekartzea.	9	% 62
Hiri-inguruneak bere onera ekartzea.	87	% 83
Natura-inguruneak bere onera ekartzea.	10	% 87
HIRIKO JARDUERAK INGURUMENEAN DUTEN ERAGINA MURRIZTEA	61	% 83
Sareak eta azpiegiturak hobetzea (saneamendua, argiteria...)	35	% 95
Kaleak oinezkoentzako bihurtzea eta plazak urbanizatzea.	3	% 117
Alde zaharren itxura hobetzea eta hiriak dotoretzea.	5	% 88
Auzoetako hiri-baldintzak hobetzea.	9	% 61
Parkeak, aisialdirako guneak, bidegorriak, eta abar sortzea,..	9	% 53
ENPRESABURUAK, ETE-AK, TURISMOA ETA UDAL-ONDAREA BABESTEA	20	% 70
Enpresa-sorkuntza sustatzeko eta enpresa-jarduerari laguntzeko esparruak eta zerbitzuak	3	% 71
Guneak gaitzea industria-, merkataritza- eta hirugarren sektoreko jarduerak gauzatu ahal izateko	13	% 77
Ondarea eta interes turistikoa duten esparruak berritzea.	4	% 52
IKT-AK SARTZEA	6	% 100
Ekipamenduak eta azpiegiturak eskaintzea IKTnak sustatzeko.	3	% 95
Informazio-gizartea eta e-Administrazioa sustatzea.		% 112
GIZARTE- ETA LAN-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN TALDEEI LAGUNTZEA	11	% 103
Ekipamendu sozialak eta kulturalak.	8	% 108
Udaleko zerbitzuak eta programak.	3	% 90

4.2

**HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUEN EMAITZAK
ETA INPAKTUAK**

Azken atal honetan, burutu diren jarduerak ekarri dituzten emaitza nagusiak aztertuko ditugu. Horrez gain, helburu horiek bete izanak ekarri dituen ondorioak edo izan dituen eraginak ere aztertuko ditugu, eta arreta berezia eskainiko diegu 2009an amaitu diren Izartu programei. Azpimarratu beharra dago zenbait kasutan, nahiz eta jarduerak guztiz exekutatu, eraginak aztertzen baditugu antzeman daitekeela helburuek ez dutela aurrera egin uste bezain beste. Izan ere, azpiegitura eta ekipamendu berrietako askok ez dituzte oraindik sortu espero zitezkeen emaitza guztiak. Emaitza horiek hurrengo ekitaldietan gauzatuko dira nagusiki.

10. taula: Kohesio-helburu orokorrak. 2004-2009 denbora-tarteko emaitzen aurrerakuntzak.


KOHESIO-HELBURU OROKORRAK	Emaitzak. %
LURRALDE-INTEGRAZIOARI BURUZKO ARAZOAK GAINDITZEA	% 83
ESPARRU KALTETUAK EDOTA ABANDONATUAK BERE ONERA EKARTZEA ETA HOBETZEA	% 81
HIRIKO JARDUERAK INGURUMENEAN DUTEN ERAGINA MURRIZTEA	% 83
ENPRESABURUAK, ETE-AK, TURISMOA ETA UDAL-ONDAREA BABESTEA	% 130
IKT-AK SARTZEA	% 81
GIZARTE- ETA LAN-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN TALDEEI LAGUNTZEA	% 70

4.2.1. Lurralde-integrazioari buruzko arazoak gainditzea.

Izartu programaren seigarren exekuzio-urtea amaitzean *Lurralde-integrazioari buruzko arazoak gainditzea* helburu orokorrean **aurreikusitako emaitzen % 83 lortu da**.

Helburu horren baitan 58 jarduera aurreikusi ziren eta horietatik % 90 amaitu da ia. Orain arteko lorpenen artean hauek dira aipagarrienak: **73.300 metro koadro errepide** egitea eta hobetzea (**horietatik 25.186 2009an**), **41 km pasabide, espaloi eta pasealeku** berritzea eta irisgarritasuna hobetzeko ekipamendu berriak jartzea, hala nola **8 arrapala, 10 eskailera mekaniko, 2 igogailu eta autoak uzteko gune berriak**.

13. grafikoa: Izartu II programen ekarpena "lurralde-integrazioa" helburuan.



Jarduera horiei esker, 30 udalerrik hiri-sare **egituratuagoa eta** herritar guztientzako **eskuragarriagoa** dena lortu dute.

Tokiko arduradunek eta teknikariek oinezkoentzako irisgarritasuna eta hiri barneko komunikazioa handitu dela, eta horren ondorioz esku hartutako gunetako segurtasuna ere handitu dela adierazi dute. Hauek dira udalerri onuradunetan programak izandako eraginik nabarmenenak: **hiringuruetako auzoak hiriguneetara hurbiltzea, mugikortasun urria duten pertsonen bizikaltatea hobetzea** (minusbaliatuak, adineko pertsonak...), muga fisikoak zein psikologikoak desagerraraztean hiriko guneen arteko **joan-etorria handitu izanaren ondorioz hiritarren harreman sozialak haztea**, eta oinezkoentzako gunetan ibilgailuak sartzea debekatzen duten hirigintza-ordenamenduei esker, **trafikoa hobetzea**.


LURRALDE-INTEGRAZIOARI BURUZKO ARAZOAK GAINDITZEA

- **Antzuolan** Uzarraga auzoa eta Lizarraga etorbidea batzen dituen errepide berri bat eraiki da (170 m), trafiko astuna herriaren erdigunetik igaro ez dadin.
- **Ermuan** degradatutako 1.500 metro koadro berrurbanizatu dira, hiringuruetako auzoetako irisgarritasuna hobetzeko.
- **Derion** Uribe kalea eta Almazene kalearen artean bide berriak eraiki dira, gutxi gorabehera 11.000 metro koadro.
- **Karrantzako** bideak eta herrien arteko loturak hobetu dira, Amasaguas eta La Tejera auzoen arteko herri-bideetan, oinezkoentzako zein ibilgailuentzako bideetan, 21 km berritu dira.
- **Lasarten**, Oria ibaiaren inguruko guneeetan, 9.000 metro koadro bide berritu edota egin dira.
- **Agurainen** pasabide berri bat eraiki da gunee historikoko ekialdeko ingurabidea integratuz eta Erdi Aroko auzoaren ekialdean dagoen auzoarekin lotuz (4.480 biztanlek jaso dituzte lan horren onurak).
- **Soraluzeko** iparraldeko bide-korapiloa hobetzeko programa gauzatu da. Horretarako, Sagar-Erreka parean, Deba ibaiaren bi aldeak, Mendiola pasealekua eta Baltegieta lotzen dituen zubia eraiki da. Mendiola pasealekuko urbanizazioa hobetu da: zorua konpondu da, euri-uren saneamendu-sarea hobetu da eta baranda berria jarri da.
- **Villabonan**, Oria ibaiaren gainean pasabide berri bat eraiki da eta 160 metro koadro baino gehiago jarri dituzte oinezkoentzat.

4.2.2. Esparru kaltetuak edota abandonatuak bere onera ekartzea eta hobetzea.

Izartu programaren baitan inbertsio gehien duen helburua izanda, 2009a amaitzean **106 jardueretatik % 81 amaitu da**. Hauek dira lortutako emaitzarik garrantzitsuenak: industrialdeetako, hirietako eta natura-inguruneetako 768.348 metro koadro berreskuratu dira, horietatik 18.000 metro koadro 2009an. Bestalde, hobetutako azalerari dagokionez, 500.000 metro koadro baino gehiago bere onera ekarritako eta hornitutako hirietako gunee publikoetakoak dira eta, horrez gain, 29.500 metro koadro berreskuratu dira degradatuta zeuden natura-inguruneetan.

14. grafikoa: Izartu II programen ekarpena "Esparruak bere onera ekartzea eta hobetzea" helburuan.



Jarduerak horiek ezinbestekoak izan dira industrialdeetako eta hirietako guneak eta natura-inguruneak birstortzeko eta udalerri onuradunetan espazio horiek berrerabili ahal izateko. Berreskurapen horri esker, udalerri horietako **biztanleentzako guneak** sortu dira, eta zenbait kasutan, udalerri horien inguruko udalerriek ere nabaritu dute berreskurapenaren eragina. Izartu II programari esker **bertan behera utzitako eraikinak eta gune industrialak ere desagertu dira**. Gainera, gune horietan liburutegiak, museoak, zentro zibiko berriak eta abar eraiki dira. Gune askotan **azpiegiturak eta zerbitzu-sareak berriztatu dira**, hiriko ingurumena bizi-kalitateko urbanizazio-estandarretara egokituz. **Gune publiko irekien kopuruak** eta komunitatearen garapenerako guneen kopuruak **gora egin du**.


ESPARRU KALTETUAK EDOTA ABANDONATUAK BERE ONERA EKARTZEA ETA HOBETZEA

- **Amorebietako** Sabino Arana kaleko 250 metro koadrotan espaloiak zabaldu dira, gainazaleko aparkalekuak egin dira eta saneamendua, zorua, argiztapena, pintura eta hiri-altzariak hobetu dira.
- **Antzuolan** 2.070 metro koadro dituen erabilera anitzeko eraikin bat eraiki dute, bertan gaztetxea edo gaztegunea, liburutegia eta hemeroteka, kultua taldeek beren jarduerak egiteko lokalak, hainbat jardueratarako tailerrak eta abar jartzeko.
- **Arrasateko** Makatzeta auzoa berritu da, 15.540 metro koadroko azalera: barneko bidea, zorua, argiztapena eta lorategiak berrurbanizatu dituzte, hormak eta eskailerak konpondu dituzte, eta balkoiak eta horien hegala egokitu dituzte.
- **Artzentalesko** Santa Cruz auzoan ekipamendu soziokulturala berregituratu eta eraiki dute, eta 2009an 12 ekintza baino gehiago antolatu dituzte bertan.
- **Astigarragako** 21. eremua (Mundarro) urbanizatzeko proiektuak gutxi gorabehera 17.000 metro koadrotan izan du eragina.
- **Donostiako** Martutene auzoan guneko publikoa berrurbanizatu dute, eta guneko irekiak, atsedena hartzeko gunak eta haurrentzako gunen azalera 1.666 metro koadro handitu dute.
- **Hernaniko** La Cumbre eta Elizatxo auzoetako zerbitzu-sareak berrurbanizatu eta berrizatu dituzte, eta gainazaleko urbanizazioa udalerriko gainerako urbanizazioa egokitu dute.
- **Iurretan** bertan behera utzitako bi eraikin bota dituzte hiritarrentzako gunak eraikitzeko.
- **Karrantzan** Dolomitas del Norte enpresaren industria-gunea berrizatu dute biztanleek erabili dezaten: guneko publikoa, meatzaritzaren museoa, erabilera anitzeko gunak, kultura-gelak eta abar eraiki dituzte bertan.
- **Legazpiko** langile-auzoak urbanizatu dituzte, guztira 71.000 metro koadro baino gehiago: sarbideak hobetu dituzte, espaloiak egin dituzten, aparkalekuak jarri dituzte, argiztapen publikoa hobetu dute, hiri-altzari berriak jarri eta aldatu dituzte...
- **Villabonako** Ubare auzoko guneko publikoak berrantolatu eta berrurbanizatu dituzte (11.674 metro koadro): saneamendu-azpiegiturak, uraren lotura-hodien azpiegiturak eta telefono- eta telekomunikazio-azpiegiturak berrizatu dituzte, muga arkitektonikoak desagerrarazi dituzte, bide berri bat egin dute, hiri-ekipamenduak jarri dituzte...
- **Zeanuriko** San Isidro kalean 9.000 metro koadro urbanizatu eta oinezkoentzat jarri dira, eta horretarako trafikoa gutxitzeko neurriak hartu dituzte eta aparkalekuak berrantolatu dituzte.

4.2.3. Hiriko jarduerak ingurumenean duten eragina murriztea.

Helburu horri dagokionez, **denbora-tarte guztirako aurreikusitako 61 jardueren artean, emaitzen % 83 lortu da.** Besteak beste, hauek gauzatu dira: horniketa- eta saneamendu-sareetan 95.100 metro berritu dira; 350 hektarea berritu dira eta hektarea horietatik 20 baino gehiago hirian parkeak eta berdeguneak sortzeko erabili dira.

15. grafikoa: Izartu II programen ekarpena "Ingurumenak jasaten duen eragina murriztea" helburuan.



Esku-hartze horiei esker, **udalerri onuradunen ingurumen-kalitatea hobetzea lortu da**, hirietako gune publikoen eta aisialdirako gune naturalen kopurua gora egiten ari baita. Horrez gain, sareak eta zerbitzuak berriztatzen ari direnez eta, horren ondorioz, gehiago aurrezten denez eta isuri kutsatzaileak murrizten ari direnez, energiaren eraginkortasuna eta baliabideen ekonomia sustatzen da.

HIRIKO JARDUEREN INGURUMENEAN DUTEN ERAGINA MURRIZTEA


- **Donostian** Ametzagaina parkea egokitu eta hobetu dute. Martuteneko natura-gune hori berreskuratu izanari esker, basoberritutako 4,26 hektarea dituen aisialdirako gune bat sortu dute hirigunearen inguruan.
- **Karrantzan**, tokiko agenda 21ean zehaztutako eraginkortasun energetikorako irizpideak betez, argiztapen publikoa berriztatu dute. Elektrizitate-instalazio berria aurrekoak baino % 30 eraginkorragoa da eta aldaketak 2.887 biztanleengan izango du eragina.
- **Elgoibarren** hiria edertzeko programa jarri dute abian eta hobekuntzak egin dituzte bide publikoetan: hiri-altzariak, seinaleztapena, argiztapena, lorezaintza...
- **Turtziozen** zaborra eta hondakinak biltzeko edukiontziak lurperatu dituzte eta inguruko 3,4 kilometro koadro txukundu dituzte.
- **Zeanurín** udaleko instalazioen sistema orokorra lurperatu dute: hobetutako zerbitzuentzako 7.500 metro hodi jarri dituzte, 3.000 metro kable jarri edo ordezkatu dituzte, zerbitzu berri horiek jarri izanak 22.500 metroko azalera eragina izan du...

4.2.4. Enpresaburuak, eteak, turismoa eta udal-ondarea babestea.

Izartu programa hasi zenean ezarritako **helburuen % 69 bete da**. Horri esker, programaren baitan **enpresa-jarduerak sustatzeko aurreikusitako 20 jardueretarako** 150.230 metro koadroko azalera gaitu da. Modu horretara, enpresaburuek beharrezko azpiegiturak lortu dituzte eta 200 ekimen baino gehiago gauzatu dira enpresei zuzenean laguntzeko.

Jarduera horien bitartez Izartu programak **turismoaren sektoreari emandako bultzada** ere nabaria da, programak eragin zuzena izan baitu aktiboen eta interesguneen berreskurapenean eta horien balioztapenean.

16. grafikoa: Izartu II programen ekarpena "Enpresaburuei, ETEei eta turismoari laguntza eskaintzea" helburuan.



Aurreko deialdian gertatu bezala, **Izartu II programak eragin handia izan du tokiko garapen ekonomikoan.** Enpresaburuak eta enpresa-sortzaileak gaitze aldera, martxan jarri dira enpresei aholkuak eman eta laguntza eskaintzeko hainbat programa eta, horiei esker, enpresariak eta ekintzaileak berrikuntzari, kudeaketa hobetzeko moduei eta internalizazioari buruzko hainbat alderdi landu dituzte.

Hobekuntza urbanistikoek eragin handia dute merkataritza txikian eta bidegorriak eta pasealekuak eraiki direnez eta ondare kulturala, historikoa eta arkitektonikoa berritu denez, udalerri onuradunek turismoaren sektorea garatzeko gero eta aukera gehiago dituzte.


ENPRESABURUAK, ETEAK, TURISMOA ETA UDAL-ONDAREA BABESTEA

- **Donostian** Martuteneko industrialdea eraberritu eta Ekonomia Berrirako gune bilakatu dute. Eraberritze horrek eragin zuzena izan du 400 enpresatan, aholkularitzarako 50 programa jarri baitira abian, sarbideak eta seinaleztapena hobetu baitira eta ekipamendu berritzaileak sortu baitira (Democenter). Gaur egun 10 enpresa berrik baino gehiagok dute beren egoitza gune horretan.
- **Gernikan** JAI ALAI pilotalekua berreskuratu eta bestelako erabilera soziokulturaletarako egokitu dute. Hori dela eta, 4.000 metro koadroko azalera sortu da, eta aniztasun ekonomikoan eta izpiritu ekintzailean eragina izatea espero dugu. Era berean azokako gunean estalkia jartzeko lehen pausoak eman dira, eta horrek eragin zuzena izango du bertako merkataritzan.
- **Hernanin** 3.500 metroko bidegorri-sarea eraiki dute. Aurreikuspenen arabera bi bide berri horietan 200 erabiltzaile inguru ibiliko dira egunero.
- **Aguraingo** ikastola zaharra berritu da. Eraikin horrek balio arkitektoniko handia du eta berritze-lanei esker, orain arte sakabanatuta zeuden musika eskolaren jarduerak eraikin berean eskaini ahal izango dituzte.
- **Ugaon**, Leitoki hegalean, 950 metroko pasealekua eta aisialdirako eremua duen hiri-zirkuitua egin dute.

4.2.5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea.

Berrikuntza teknologikoarekin zerikusi zuzena duen **helburu honen baitan 6 jarduera ditugu, eta 2009an dagoneneko gainditu dituzte Izartu programa abian jarri zeneko aurreikuspenak.**

Hori horrela, 6 urte hauetan zehar IKTak sustatzeko sortutako guneetan 1,6 km zuntz optiko jarri dira, Informatikaren eta Teknologia Berrien hastapenetrarako programak gauzatu dira eta **administrazio digitaleko lau ekimen** jarri dira abian. Gaur egun, udalerrri onuradunetako biztanleen kopuruari erreparatuz gero, begien bistakoa da ekimen horiek erabiltzaile asko dituztela, eta 2009an administrazio-prozesu gehiago ere jarri dira abian.

17. grafikoa: Izartu programen ekarpena "IKTNak sartzea" helburuan.

Teknologia berrietara gerturatzeko programak harrera bikaina izaten ari dira, hala erakusten du, bederen, herritarrek zerbitzu informatizatu berrietan duten parte-hartzeak.

Herrietako arduradunek nabarmendu dute herritarrek ezagutza berriak barneratzen ari direla eta erabiltzaileak elkarri eragiten ari direla. Horrez gain, hainbat udal IKTez baliatu da baliabide informatikoak erabiliz administrazioko zenbait izapide kudeatzeko. Horren eraginez, udalerrietako herritarrek askoz erosoago eta azkarrago egin ditzakete administrazioko izapideak eta udalerrri horietako biztanleek udalek eskaintzen duten irisgarritasuna handiagoa dela egiaztatu ahal izan dute.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK SARTzea


- **Azpeitiko** udala informazioaren gizartean sartu da eta IKTNen erabileraren bitartez administrazioa digitalizatu du (datu baseak eta artxiboa, GIS, zerbitzuak eta izapideak udaleko webgunearen bidez bideratzea, eta abar). 2009an 9 programa garatu dira (aurreikusitakoak baino 4 gehiago) eta 17.000 erabiltzaile baino gehiago izan dituzte.
- **Mutrikuko** udalean internet bidezko administrazio-prozesuak jarri dira abian eta euskarri hori erabiltzen duten herritarren kopuruak gora egin du.
- **Agurainen** zuntz optikoa jarri dute eta udaletxeko zerbitzaria egokitu dute 12 zerbitzu berriekin. Horrek guztiak udalerriko informazio- eta komunikazio-azpiegiturak berriztatzea ekarri du. Aurrerabide horiei esker, biztanleei zerbitzu hobea eskain diezaiekete. Udaletxeko zerbitzuetako batzuk Zabalartera deszentralizatu dira, besteak beste liburutegia eta turismo-bulegoa, eta horri esker, biztanleek errazago irits daitezke bertara udalerriko hainbat tokitatik.

4.2.6. Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei laguntzea.

Helburu horri dagokionez, bere baitan denbora-tarte guztirako bildutako 11 jardueretatik 9 amaitu ondoren, **aurreikusitako emaitzen % 81 lortu da**: 22.300 metro koadro erabili dira gizarte-programetarako, 18.000 erabiltzaile berri baino gehiago erregistratu dira, 34 lanpostu berri sortu dira eta 400 jarduera sozial eta kultural baino gehiago jarri dira abian.

Esku-hartze horiek exekutatu ondoren lortutako emaitzek argi erakusten dute Izartu programa aukera **berdintasunean oinarritutako giza garapena eta hiri-garapena** bultzatzen ari dela eta, ondorioz, udalerriko biztanle guztien aukerak handiagoak direla baina, bereziki, bazterketa jasako arriskuan dauden biztanleenak. Bestalde, helburu horren baitan, hirugarren sektorea bultzatzeko ahaleginari dagokionez, oso emaitza onak lortu dira.

18. grafikoa: Izartu programen ekarpena "Diskriminazio positiboa" helburuan.



Aipagarriak dira kultura-zerbitzuen eskaintzaren hazkuntza eta jarduera soziokulturalei emandako bultzada. Udalerrri onuradunetako garapen soziala eta biztanleen garapena sustatzen duten elkarteak eta taldeak elkartzeko guneak sortu dira, bai eta haurrentzako eta gazteentzako aisialdirako alternatiba berriak ere.

Tokiko ordezkariak azaldu dute gizarte-egoera txarrean daudenek gogo onez hartu dituztela beren udalerrietan haiei laguntzeko martxan jarri diren ekipamenduak eta zerbitzuak. Ordezkariek aipamen berezia egin diete bazterketa jasateko arriskuan daudenentzako abian jarri diren trebakuntza- eta lan-jarduerei, pertsona horiek gizarteratzeko aukera gehiago baitituzte horiei esker.

GIZARTE- ETA LAN-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN TALDEEI LAGUNTZEA

- **Derion** Larrabari baserria eraiki da, gizarteratzea bultzatzeko jardura soziokulturalak gauzatzen dituzten elkarteek eta taldeek erabil dezaten.
- **Donostiako** Martutene auzoan hornidura soziokultural gehiago jarri dira: Etxarri-Ene zentro zibikoa eraiki dute eta ikastolako jolastokiaren zati bat itxi dute. Zentro zibikoak 460 metro koadro eta 14.000 erabiltzaile ditu. Gazteentzako elkargune bilakatu da eta jardura kulturalak, sozialak eta jolaserako jarduerak antolatzen dira bertan. Hauek dira zentro zibikoak eskaintzen dituen zerbitzuak: erabilera anitzeko gela eta tailerrak, "kale-hezitzaileak", Gaztelekua eta teknologia berrietarako gunea.
- **Erandion** 700 metro koadroko azalera duen eraikin bat eraiki dute laguntza-zerbitzuetarako eta jardura soziokulturaletarako: kontsultategia (zerbitzuaren gaitasuna % 50 handitu da), hirugarren adinekoentzako biltokia, erabilera sozialetarako lokalak, udaleko erabilera anitzeko gela eta haurtzaindegia.
- **Hernanin** Zaharren egoitza handitu da eta ekipamendu mota horietarako ezarritako legedira egokitzeko beharrezko aldaketak egin dira. Esku-hartzean 3.216 metro koadro gehiago eraiki dira eta lehengo 6.727 metro koadro berritu dira. Beraz, esku-hartzea amaitu ondoren eraikinak guztira 10.000 metro koadro ditu. Horri esker, kalitate-estandarrak beteko dira plaza-kopuruari eta horien dentsitateari dagokionez.
- **Mutrikun** emakumeentzako berdintasun plan bat garatu da. Plan horren helburuak dira emakumeek foroetan duten parte-hartzea sustatzea eta dituzten aukera-profesionalak handitzea.
- **Seguran** zahar-etxea berritu dute egoitza osasungarritasun- eta irigarritasun-arauetara egokituz: elektrizitate-instalazioa, iturgintza, sarbideak, arotzeria, altzariak. Horrez gain, berritze-lanek aisialdirako eta harremanetarako guneak egokitzea eta prestatzea ahalbidetu dute.

I. ERANSKINA

Izartu programaren
finantza-taula. 2009

2004-2008 ALDIKO IZARTU PROGRAMAK	GUZTIZKO INBERTSIOA	% DIRU- LAG.	DIRULAGUNTZA	BIZTANLE ONURADUNAK	INBERTSIOA BIZTANLEEN ARABERA	GASTUAREN PLANGINTZA ETA BETEARAZPENA																		2004-2009 GASTUAREN GUZTIZKO INBERTSIOAREN ARABERA	2010. URTEA
						2004. URTEA			2005. URTEA			2006. URTEA			2007. URTEA			2008. URTEA			2009. URTEA				
						BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA				
						PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2004EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2005EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2006EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2007EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2008EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2007EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ		
GUZTIRA	172.933.904 €	62%	109.000.000 €	439.471	394 €	1.333.335 €	8.069.433 €	605%	28.145.648 €	28.093.858 €	100%	56.642.343 €	34.885.036 €	62%	55.537.567 €	34.849.291 €	63%	29.970.402 €	29.135.618 €	97%	23.099.976 €	20.876.264 €	90%	2004-2009 GASTUAREN GUZTIZKO INBERTSIOAREN ARABERA	12.908.106 €
ARABA	5.438.098 €	50%	2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	140%	866.182 €	876.113 €	101%	1.233.391 €	2.632.697 €	213%	2.136.485 €	109.224 €	5%	586.490 €	423.483 €	72%	1.673.575 €	1.866.378 €	112%	109%	- €
Arabako Lautada	5.438.098 €	50%	2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	140%	866.182 €	876.113 €	101%	1.233.391 €	2.632.697 €	213%	2.136.485 €	109.224 €	5%	586.490 €	423.483 €	72%	1.673.575 €	1.866.378 €	112%	109%	- €
SALVATIERRA/AGURAIN	2.697.133 €	50%	1.348.567 €	4.006	673 €	16.496 €	46.713 €	283%	429.405 €	496.783 €	116%	352.357 €	362.743 €	103%	1.216.805 €	85.870 €	7%	31.452 €	409.853 €	1303%	1.673.575 €	1.866.378 €	112%	121%	- €
VITORIA-GASTEIZ	2.740.965 €	50%	1.370.465 €	1.745	1.571	16.764 €	-	-	436.777 €	379.330 €	87%	881.034 €	2.269.354 €	258%	919.680 €	23.353 €	3%	555.038 €	13.630 €	2%	-	-	#DIV/0!	98%	- €
GIPUZKOA	79.566.533 €	83%	45.910.511 €	178.969	445 €	561.598 €	2.870.360 €	511%	13.282.514 €	11.588.953 €	87%	26.852.634 €	14.665.349 €	55%	26.859.279 €	19.106.073 €	71%	16.296.391 €	15.187.323 €	93%	9.699.094 €	13.089.311 €	135%	96%	5.819.043 €
Debagoiena	16.064.253 €	35%	5.432.614 €	21.465	748 €	66.454 €	536.612 €	807%	2.843.369 €	2.073.518 €	73%	5.200.025 €	4.162.123 €	80%	4.602.568 €	2.400.675 €	52%	3.682.051 €	3.945.245 €	107%	2.091.909 €	763.405 €	36%	86%	1.257.527 €
ANTZUOLA	3.899.956 €	30%	1.169.987 €	1.899	2.054 €	14.312 €	28.285 €	198%	880.173 €	323.848 €	37%	1.727.061 €	1.110.688 €	64%	997.479 €	1.137.641 €	114%	1.194.277 €	1.115.725 €	93%	245.378 €	451.931 €	184%	107%	- €
ARRASATE/MONDRAGON	3.066.685 €	50%	1.533.343 €	2.800	1.095 €	18.756 €	68.406 €	365%	491.563 €	101.593 €	21%	988.610 €	1.697.814 €	172%	1.027.258 €	129.749 €	13%	269.123 €	892.579 €	332%	650.000 €	186.267 €	29%	100%	150.000 €
BERGARA	4.852.280 €	30%	1.455.684 €	14.965	324 €	17.807 €	388.777 €	2183%	787.603 €	1.117.758 €	142%	843.819 €	793.115 €	94%	1.626.600 €	87.967 €	5%	2.137.343 €	1.911.573 €	89%	256.314 €	42.445 €	17%	89%	71.007 €
ESKORIATZA	4.245.332 €	30%	1.273.600 €	1.801	2.357 €	15.579 €	51.144 €	328%	684.030 €	530.319 €	78%	1.640.535 €	560.506 €	34%	951.231 €	1.045.318 €	110%	81.308 €	25.368 €	31%	940.217 €	82.763 €	9%	54%	1.036.520 €
Bidasoa Behea	4.560.420 €	75%	3.420.315 €	35.322	129 €	41.839 €	16.468 €	39%	1.181.580 €	562.155 €	48%	1.934.677 €	1.276.668 €	66%	2.006.506 €	2.006.506 €	100%	49.736 €	33.035 €	66%	-	-	#DIV/0!	85%	631.471 €
HONDARRIBIA	1.795.041 €	75%	1.346.281 €	1.301	1.380 €	16.468 €	16.468 €	100%	741.072 €	536.163 €	72%	1.037.501 €	1.224.994 €	118%	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
IRUN	2.765.379 €	75%	2.074.034 €	4.206	2.597 €	25.371 €	-	0%	440.508 €	25.992 €	6%	897.176 €	51.674 €	6%	2.006.506 €	2.006.506 €	100%	49.736 €	33.035 €	66%	-	-	#DIV/0!	77%	631.471 €
Debabarrena	9.362.146 €	58%	5.304.113 €	19.375	483 €	64.881 €	101.843 €	157%	1.502.412 €	896.301 €	60%	2.479.743 €	552.944 €	22%	2.895.360 €	1.851.547 €	64%	2.346.998 €	1.810.215 €	77%	2.538.600 €	3.254.003 €	128%	90%	1.073.915 €
ELGOIBAR	3.637.165 €	50%	1.818.583 €	10.440	348 €	22.245 €	44.395 €	200%	587.516 €	323.860 €	55%	1.177.026 €	47.999 €	4%	190.072 €	365.753 €	192%	1.009.352 €	803.839 €	82%	1.622.057 €	2.590.660 €	160%	116%	223.749 €
MUTRIKU	3.232.822 €	50%	1.616.411 €	4.775	677 €	19.772 €	55.280 €	280%	519.506 €	442.754 €	85%	495.778 €	137.525 €	28%	1.872.586 €	1.195.246 €	64%	449.628 €	447.531 €	100%	509.384 €	45.042 €	9%	72%	443.006 €
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	2.492.159 €	75%	1.869.119 €	4.160	599 €	22.864 €	2.168 €	9%	395.390 €	129.686 €	33%	806.939 €	367.419 €	46%	832.703 €	290.548 €	35%	888.017 €	531.845 €	60%	407.159 €	618.301 €	152%	78%	407.161 €
Donostialdea / Donostia San Sebastian	2.473.773 €	75%	1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	-	0%	392.353 €	343.960 €	88%	800.867 €	481.428 €	60%	826.631 €	832.796 €	101%	817.788 €	727.846 €	89%	87.743 €	130.180 €	148%	102%	76.251 €
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	2.473.773 €	75%	1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	-	0%	392.353 €	343.960 €	88%	800.867 €	481.428 €	60%	826.631 €	832.796 €	101%	817.788 €	727.846 €	89%	87.743 €	130.180 €	148%	102%	76.251 €
Mendebaldeko ingurubidea	10.307.646 €	63%	6.224.845 €	52.390	197 €	76.146 €	1.076.510 €	1414%	1.639.801 €	3.813.724 €	233%	2.894.737 €	1.278.985 €	44%	3.105.264 €	1.008.268 €	32%	2.135.982 €	1.893.230 €	89%	727.833 €	5.080.073 €	698%	137%	478.355 €
ANDOAIN	2.156.467 €	75%	1.617.350 €	13.814	156 €	19.784 €	310.890 €	1571%	339.954 €	1.529.280 €	450%	696.068 €	274.013 €	39%	721.832 €	16.127 €	2%	-	-	-	-	-	-	-	-
ASTIGARRAGA	2.862.964 €	50%	1.431.482 €	2.634	1.087 €	17.511 €	39.000 €	223%	457.300 €	1.499.540 €	328%	669.737 €	191.444 €	29%	147.833 €	383.078 €	259%	456.703 €	383.239 €	84%	366.663 €	532.462 €	145%	106%	-
HERNANI	3.160.597 €	50%	1.580.299 €	18.747	169 €	19.331 €	726.620 €	3759%	507.359 €	523.986 €	103%	842.390 €	795.932 €	94%	1.151.115 €	24.667 €	2%	1.057.764 €	893.060 €	84%	196.332 €	4.544.131 €	2315%	238%	-
LASARTE-ORIA	2.127.618 €	75%	1.595.714 €	17.195	124 €	19.520 €	-	0%	335.188 €	260.918 €	78%	686.542 €	17.596 €	3%	1.084.484 €	584.396 €	54%	621.516 €	616.931 €	99%	164.837 €	3.480 €	2%	70%	478.355 €
Ekialdeko ingurubidea	8.061.855 €	67%	5.120.911 €	14.672	549 €	62.641 €	3.248 €	5%	729.636 €	241.276 €	33%	3.184.701 €	667.644 €	21%	1.530.581 €	1.964.619 €	128%	1.299.352 €	1.976.610 €	152%	1.619.781 €	928.884 €	57%	72%	1.674.559 €
ERREENTERIA	2.545.015 €	75%	1.908.761 €	11.455	222 €	23.349 €	3.248 €	14%	404.117 €	24.523 €	6%														